



EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. UDAL PLANA

Erakunde dinamizatzailea:



Erakunde finantzatzailea:



AURKIBIDEA

1. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren aurkezpena eta testuingurua

1.1. Araudi-esparrua.

1.2. Esparru pragmatikoa.

1.3. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren egituraren deskribapena.

1.4. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana prestatzeko prozesua.

2. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren printzipio gidariak.

3. Esku hartzeko ardatzak.

- I. ARDATZA. Emakume eta gizonen berdintasunerako gobernamentu ona.
- II. ARDATZA. Emakumeen ahalduzko politikoa eta soziala eta balio-aldaketa.
- III. ARDATZA. Gizarte-antolakuntza eraldatzea, bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko.
- IV. ARDATZA. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

4. Kudeaketa-eredua.

4.1. Garapena eta segimendua.

4.2. Ebaluazioa.

4.3. Baliabide ekonomikoak.

5. Kronograma

1. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. UDAL PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren helburua berdintasuna sustatzen duten eta haren alde lan egiten duten politika publikoen garapena bermatzea da. Berdintasuna zeharkakoa dela aintzat hartuta, udal-planak agerian utzi du emakumeek udalerrian bizi duten egoera eta, zenbait gizarte-kolektiborekin batera, hainbat ekintza ezarri ditu, emakumeen egoera aldatzeko.

Udal-gobernurako estrategikoa izan da ibilbide-orri hau egitea; bertan, genero-ikuspegitik eta ikuspegi eraikitzailetik, gure udalerrian gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak zer gizarte-jarrerak eta -portaerak eragiten dituzten identifikatu ahal izateko. Udal-plan hau egin gabe, nekeza izango litzateke pertsona guztien berdintasuna landu eta bermatzea.

Era berean, aurkeztu dugun udal-plana 2014an prestatutako diagnostikoan identifikatu ziren hobekuntza-arloez elikatu da. Horrela, udal-planean ezarritako ekintzak datozen bi urteetan egingo dira, 2019an eta 2020an.

1.1. Araudi-esparrua.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana babesten duen lege-esparrua Estatuko, Europako eta nazioarteko hainbat arauditan garatzen da. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak¹, lehen bi artikuluetan, pertsona guztien berdintasun-eskubidea eta arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaioterria edo beste edozein baldintza oinarri hartuta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea jaso ditu. Era berean, 1993an, Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeke Adierazpena (CEDAW) sinatu zen; funtsezko tresna da munduan giza eskubideen urraketa larri horri aurre egiteko.

¹ <https://dudh.es/tag/igualdad/>

Europar, azken hamarkadetan, zenbait itun eta zuzentarau garatu dira; horietan, berdintasun-printzipioa jaso da estatu kideek garatutako politika eta ekintza guztietan, eta hala ezarri da **Amsterdameko Itunean**, 1999koan, eta **2002/73/EE, 2004/113/EE** eta **2006/54/EE zuzentarauean**; horiek enplegura, prestakuntzara eta lan-baldintzetara jotzeko, ondasun, zerbitzu eta hornikuntzetara jotzeko eta enplegu- eta lanbide-gaietan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioan oinarrituta garatu dira. Gainera, **2006ko Bizitza Lokaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunak** tokiko gobernuei beren udal-eskumenak baliatu eta genero-berdintasuna lortzeko kooperatzera dei egiten die.

Era berean, 2011n, Europako Kontseiluak Emakumearen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Kontrako Borrokari eta Prebentzioari buruzko Ituna onetsi zuen; ituna **Istanbulko Itun** izenez ezagutzen da, eta lehen tresna loteslea da Europa mailan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eta lehena indarkeria hori diskriminatzeko modu gisa aitortzen duena eta egokiro erantzuten ez duten estatuak arduradun nagusizat jotzen dituen. Halaber, Europa mailan nabarmentzekoa da Gizakien Salerosketaren Aurkako Borrokarako Europako Kontseiluaren Ituna, 2005eko maiatzaren 16koa; genero-ikuspegia sartzen du gizakien salerosketaren aurkako borrokan eta administrazioen funtsezko betebeharrak berresten ditu gehiegikeria larri horren aurrean.

Bestalde, alde batetik berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza aldarrikatzen dituen EKren 14. artikulua eta, bestetik, botere publikoak gizabanakoaren eta barne hartzen dituen taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzera derrigortzen dituen 9.2 artikulua jaso duten aginduari jarraikiz, Espainiako Estatuak bi arau aldarrikatzen ditu sexuagatiko edozein diskriminaziorekin amaitzeko, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko: **Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Lege Organikoa (3/2007 Lege Organikoa)** eta **Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien Lege Organikoa (1/2004 Lege Organikoa)**. Baina 3/2007 Lege Organikoa, Bizitza Lokaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunarekin bat etorriz,

udalen kasuetarako beren eskumenetan berdintasun-eskubidea sartzea ezartzen du, bai eta horretarako gainerako administrazio publikoekiko elkarlana ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Autonomia Estatutuak, 9.1. artikuluan, berdintasunerako eta sexuagatiko diskriminaziorik ezerako eskubidea jaso du. Era berean, **Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak**, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an onetsi zuenak, emakume eta gizonen desberdintasunarekin amaitzea lehentasun eta helburu estrategiko gisa ezartzen du administrazio publikoen kasuan eta, horien artean, tokiko administrazioetan. Horrela, tokiko administrazioaren antolaketan eta funtzionamenduan berdintasun-printzipioa integratzeko neurriak eta berdintasunaren inguruko udal-politika, -programa eta -ekimenetan gobernamentu onerako ezinbesteko elementuak sartzeko neurriak –besteak beste, gardentasuna, gizarte-partaidetza eta konpromiso politikoa– ezartzen dira.

1.2. Esparru pragmatikoa

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana prestatzeko esparru pragmatiko eta orientatzaile gisa, **Emakunderen Emakume eta Gizonen VII. Berdintasun Plana** hartu da aintzat; bertan, berdintasunaren arloan esku-hartze publikoa orientatzen duten printzipio gidariak eta esku hartzeko ardatzak ezartzen dira: emakumeak ahalduntzea, eskubideak bermatzeko ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako **2030 Agenda** udal-plana eraikitzeko orduan erreferente pragmatikoetako bat ere izan da, zehazki, 5. helburua. Honako hau dio: genero-berdintasuna eta emakume eta neskatuen ahalduntzea lortzea". Era berean, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea funtsezko elementu gisa airtortuta daude, gainerako helburu eta proposatutako xedeak lortzeko.

Halaber, 2016 - 2019rako² Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europar Batasunaren Konpromiso Estrategikoa nabarmendu behar da, fase berria baita genero-berdintasuna sustatzeko ekimenetan; bertan, hartu beharreko lehentasunezko ekintzak ezartzen dira: Lan-merkatuan emakumearen parte-hartzea eta emakume eta gizonen independentzia ekonomiko beraren sustapena areagotzea; ordainsarrietan, diru-sarreretan eta pentsioetan emakume eta gizonen artean dauden arrailak murriztea; erabakiak hartzeko berdintasuna sustatzea; indarkeria sexistaren aurka borrokatzea eta biktimei babesa eta laguntza ematea; emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta mundu osoan emakumeen eskubideak sustatzea, EBren kanpo-harremanetarako lehentasun estrategikotzat planteatzen baita.

1.3. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Planaren egituraren deskribapena.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plan hau Emakundek tokiko planak prestatzeko argitaratu duen Gidaren oharrei jarraikiz egituratzen da. Horrela, honako atal hauek ditu:

- I. Sarrera bat; bertan, testuingurua eta erreferentziako araudia-esparrua eta esparru pragmatikoa, bai eta hura prestatzeko parte hartzeko prozesuaren errelatoria ere.
- II. Plana prestatzeko eta diseinatzeko prozesuaren oinarri diren printzipioen adierazpena eta hura gauzatzea eta praktikan jartzea.
- III. Esku hartzeko 4 ardatzak deskribatzen dituen funtsezko zatia, planteatutako helburuen eta horietako bakoitzean jaso diren ekintzen deskribapenarekin batera, baliabideak eta arduradunak barne.
- IV. Kudeaketa- jarraipen- eta ebaluazio-ereduari buruzko atala; prozesu horietarako adierazle zehatzak ere jaso ditu, eta ukituak eman beharko zaizkio urteko kudeaketa-planetan.

² http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/document/files/strategic_engagement_es.pdf

V. Era berean, kronograma bat jaso da eta, horren bidez, plan hau indarrean izango den bi urteetarako jardueren egutegia dago ikusgai.

VI. Plan honetan jasotako ekintzak gauzatzeko aurrekontu-erreserbaren adierazpena, aurrekontuen udal-araudiaren mugen barruan.

Nahiz eta esku hartzeko ardatzen funtsezko alderdia plan honetan egiten den apustuaren helburu diren ekintzak jasotzen dituen den, gure ustez dokumentuak kokatzen, azaltzen, testuinguruan jartzen eta zehazten du, oro har, berdintasunaren inguruko udal-politika zer den eta zer izango den.

1.4. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana prestatzeko prozesua.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana antolatzeko prozesua parte-hartzailea izan da, eta bi tresna metodologiko konbinatu ditu. Batetik, **analisi dokumentala**; horren bidez, informazioa atera ahal izan dugu diagnostikoan identifikatu ditugun hobekuntza-ildoetan ekintza-proposamenak prestatzeko. Bestetik, **lan-saioak**, zenbait gizarte-erakunderekin (emakumeen mugimendua, elkarteak, ikastetxea, udalerriko ekonomia- eta merkataritza-egitura eta udal-langileak), talde eragilearekin; kontraste-saio horietan, lan-saio bakoitzean zehaztutako ekintzak kontrastatu dira.

Udal-plana **metodologia parte-hartzailetik** abiatuta antolatu da, Bakioko eragile nagusien ikuspegi eta errealitate anitzak entzun eta jasotzeko eta, horrela, eragile parte-hartzaile guztiek zati aktibo izan ahal izateko, udal-plana antolatzeko prozesuaren hasieratik. Era berean, pertsona horiek guztiek inplikatzeko berrmatuko du planak irautea, eta berrmatuko du herritarrek beren egitea plana bera.

Prozesua koordinatzeko, **talde eragilea** sortu zen, honako kide hauekin: alkatea, kultura-teknikaria eta kanpo-aholkularitza. Talde hori izan da prozesuko buru eta taldeak berak izan du lan-saio horietan parte hartu duten eragileei dei

egiteko ardura: udal-langileak, emakumeen mugimendua, elkarteak, ikastetxeak eta udalerriko ekonomia- eta merkataritza-egitura. Horrela, udal-plana 2018an antolatu da, zehazki, otsailetik uztaileira eta irailetik abendura bitartean³.

Jarraian, berdintasun-plana antolatzeko egin diren ekintzak lau fasetan antolatu ditugu, honako lerro hauetan ikusiko dugun bezala:

I. FASEA: Abiaraztea.

Lehen fase honetan, talde eragileari metodologia parte-hartzailea eta plana garatzeko ekintzen egutegia aurkeztu zitzaizkion. Era berean, kanpo-aholkularitzaren eginkizuna azaldu zitzaion, alegia, prozesua dinamizatzea eta plana egituratzen duen ardatz bakoitzerako ekintzak eta neurriak proposatzeko bitarteko eta tresnak ematea:

- 1. ardatza: Emakume eta gizonen berdintasunerako gobernamentu ona.
- 2. ardatza: Emakumeen ahalduzko politiko eta soziala eta balio-aldaketa.
- 3. ardatza: Gizarte-antolakuntza eraldatzea, bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko.
- 4. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

2. FASEA: Prozesua sozializatzea udalerriko gizarte-eragileekin.

Esan bezala, plana antolatzeko prozesuaren oinarriko metodologian udalerriko gizarte-eragileak prozesuaren alderdi aktibo izan dira eta, beraz, beharrezkotzat jo da metodologia parte-hartzailea eta plana prestatzeko eman beharreko urratsak aurkeztea.

3. FASEA: Lan-saioak.

³ 1. eranskina

2014an prestatutako diagnostikoan jaso diren hobekuntza-arloak oinarri hartuta, egokitzen diren lau jardun-eremutan lan egitea: hirigintza, kultura eta kirola, merkataritza, turismoa eta ostalaritza eta hezkuntza. Era berean, esku hartzeko proposatutako ardatz bat izan zenez, lan-saioa egin zen elkartzemugimenduarekin, mugimendu feministarekin eta udaleko langile teknikoekin batera, emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko. Bost saio horietan, ideiak eta proposamenak jaso ziren eta, horien bidez, plangintzaren jatorria elikatu zuten neurri eta ekintzak diseinatu ziren.

Talde eragilearen lan-saio batean, esku hartzeko beste ardatz bat sartzeko beharra ikusi zen: emakume eta gizonen berdintasunerako gobernamentu ona. Hori dela eta, nabarmentzekoa da lan-saio hori. Gobernamentu onak honako gobernagarritasun-eredu honekin du zerikusia: ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eremuetan aurrera egin eta horiek kudeatzen dituen gobernamentu eredia, kontuan hartuta horretarako genero-ikuspegia txertatzen duela gardentasunean, herritarren parte-hartzean, ikertzeko beharran, lankidetzaren publiko-pribatuaren formula berrien bilaketan, administrazioen arteko elkarlanean eta politika publikoak ebaluatzeko praktika hobetzean, politika publiko horiek hobetu eta helburuak lortzera berbideratzeko. Azken batean, xedea berdintasunean oinarritzen den eredia izatea da, eraginkortasunetik, gardentasunetik, kontuak ematek eta gizarte zibilaren partaidetzatik abiatuta.

4. FASEA: Plangintzari buruzko ideia nagusia hobetu eta baliozkotzea.

Azken fase horretan, talde eragileari plangintzari buruzko ideia nagusia aurkeztu zitzaion. Tresna horrek, gerora, berdintasun-plana ekarriko zuen. Tresnak esku hartzeko lau ardatz aurkezten zituen eta horietan hurrengo bi urteetan garatzeko ekintzak kokatu ziren. Era berean, beste topaketa bat antolatu zen elkartzemugimenduarekin eta mugimendu feministarekin eta, bertan, plangintzari buruzko ideia nagusia aurkeztu zen. Horrela, proposatutako ekintza batzuk berriro formulatu eta hobetu ziren.

Tresna baliozkotu ondoren, berdintasun-plana idazten hasi zen. Hura amaierako dokumentua da, eta EMAKUNDEri bidali zaio, egon daitezkeen hobekuntzak eta ekarpenak egin eta erakundearen oniritzia jasotzeko.

2. BALIO-ALDAKETA SUSTATZEKO PRINTZIPIO GIDARIAK

Berdintasun-plan horren helburuak, ekintzak eta metodologia jarraian zehazten diren printzipioen arabera bideratzen dira; printzipio horiek indarrean izan dira diseinuan eta identifikazioan, eta presente izango dira hura ezartzeko prozesu osoan.

Teoria eta praxi feminista

Plan honetan, Emakundek bere Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako VII. Planean egin bezala, honako jarrera hau hartu dugu: "pentsamendu feministaren ildo guztiak eta bere dimentsioak barne hartu ditugu, emakume eta gizonen artean desberdintasunak eta bazterkeriak nola eta zergatik sortzen diren azaldu eta ulertu ahal izateko teoria eta praktika politiko gisa".

Ezin dugu berdintasunaren alde pentsatu eta lan egin, teoria eta praxi feministarekin lotu gabe, feminismoa izateko modu eta munduan egoteko modu gisa ulertzen baita. Udal honek udal-politika feministaren aldeko apustua egiten du, udalaren beraren arlo eta eskumen guztiak hartuko dituen eta patriarkatua eta gure gizartean eta gure herrian dagoen desberdintasun-sistema eztabaidatu eta salatuko duen udal-politika feministaren aldeko apustua.

Generoa zeharka gauzatzea

Tokiko politikak ezin ditu emakume eta gizonen arteko desberdintasunak eraldatu, baldin eta bere jarduketa guztietan generoaren dimentsioa zeharka gauzatzearen aldeko apustua egiten ez badu. Mainstreaminga edo generoa zeharka gauzatzea da genero-kontuak politika guztietan eta edozein politika-eta gizarte-esferatan egiten diren politika eta programa guztietan presente egotea dakarren estrategia, horien jarduketa-eremu edo -maila edozein dela ere. Ikuspegi horren bidez, tokiko politikak prestatu, kudeatu eta ebaluatzean, emakume eta gizonen sozializazio bereziaren eta hierarkikoaren prozesuak hartu behar dira kontuan, behar desberdinak baitakartzate. Halaber, abiapuntu diren egoera eta posizio sozialak ere hartu behar dira kontuan, ondasun eta zerbitzu, eskubide eta betebeharrak jotzeko aukeran eragiten baitute.

Emakumeen ahalduntzea

Politika publiko ororen baldintza feminista betetzeko, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa xede, bitarteko eta prozesu gisa duten neurri eta ekintzak ezarri behar dira. Printzipio horrek arautzen du udalerrri honek berdintasunaren alde borrokatzeko duen berdintasun-politika, eta bizitza

pertsonalaren, antolamendu-, lan-, ekonomia-, gizarte-, kultura- eta politika- eta erakunde-bizitzaren maila guztietan txertatzea du xede. Erkidegoa oro har sentsibilizatzeko lana eta, bereziki, maskulinitasun hegemonikoak desegiteko lana lehentasun horrekin, alegia, emakumeen ahalduntzearekin bat egiten duten estrategiak dira.

Etengabeko lan-prozesuak

Nahiz eta emakume eta gizonen arteko berdintasunerako dokumentu hau lehen plana izan, udal honek berdintasunaren arloan orain arte egin duen lanarekin jarraitzeko plangintza egin daiteke. Plangintza horretarako, orain arte landutako ildoak eutsiko zaie, eta udalerri honetako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren eginkizuna sendotuko da. Era berean, hemen planteatzen diren estrategien bidez, bertan ezartzen den denbora-esparrua gaintitu nahi da eta ibilbide luzeko prozesuei ekin, lortu nahi diren eraldaketa-prozesuak posible izateko.

Herritarren parte-hartzea eta eragina.

Plan honen bidez, emakumeen parte-hartze errealak eta eraginkorra lortzen lagundu nahi da (ordezkaritza gutxiegi du, oro har, esfera publikoan eta botere politiko, ekonomiko, kultural eta abarretan), erabakiak hartzean eragina izan eta beren ordezkariak erabat kaltetuta dauden espazioak hartzeko. Berdintasunean oinarrituta parte hartzeak dakar, batetik, espazioak bermatzea eta, bestetik, emakumeek espazio horietara jotzeko dituzten oztopoak kentzea; bereziki kontziliazioa, esanahia eta gizarte-aitorpena sustatzeko politikak dakartza.

Plana prestatzeko prozesua eta haren segimendua egiteko eta hura betearazteko prozesua gizarte-partaidetzatik abiatu da eta, bereziki, emakumeen mugimenduaren parte-hartzea izan da protagonista. Emakumeen elkarte-mugimendua tokiko korporazioarekin koordinatzeko eta parte hartzeko espazioak sortu eta instituzionalizatu izana lehen berdintasun-plan honen apustu argietako bat da.

3. BERDINTASUNAREN ARLOAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK.

Ardatz estrategikoek datozen urteotan berdintasun-politiken arloan lehentasunezko gaiak zein izango diren zehazten dute. Ardatz horiek berdintasuna lortzeko zer landu behar den argitzen dute. Lan-ardatzak, berdintasun-planaren datozen bi urteotarako, honako hauek izango dira:

- I. ARDATZA. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNAMENDU ONA
- II. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE POLITIKO ETA SOZIALA ETA BALIO-ALDAKETA
- III. ARDATZA. ANTOLAMENDU SOZIALA ERALDATZEA, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEKO
- IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK

Jarraian, labur azalduko dugu ardatz bakoitzaren edukia eta horietako helburu eta ekintzak.

I. ARDATZA. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNAMENDU ONA

Genero-ikuspegian oinarritzen den gobernamendu onak konpromiso politikoa eta teknikoa berdintasuneko udal-politiken arabera finkatzeko apustua egiten du, generoa zeharka gauzatzeko estrategia garatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 3.4 artikulua (4/2005 Legea) ezartzen duen bezala. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko udal-politika egiteko, udal-langile guztien gaitasunak eta sentsibilitatea sendotu behar dira; izan ere, desberdintasunak bizitzako esfera guztietan du eragina eta, beraz, udal-arlo eta -instantzia guztiei ematen die eskumena hura leheneratzeko lan egin dezaten. Horretarako, planak honako erronka honi heltzen dio: langile tekniko eta politikoei, pixkanaka, genero-arraile nagusiak identifikatzeko eta Plan honetan esku hartzeko adostutako neurriak aplikatzeko behar diren ezagutzak berenganatzea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokari eta defentsari aplikatutako gobernamendu ona ulertzeko, lehentasun, ekintza eta beharrezko baliabideak planifikatu behar dira, plan honetan jasotzen direnak, besteak beste. Tokiko korporazioa herritarrengandik hurbilen dagoen gobernamendu-esfera da, toki-mailako gobernamenduaren esperientzia da, hurbilena, eta, hori dela eta, berdintasuna gauzatu behar du, herritarren erreferente gertukoena baita. Toki-mailan eta jendearen egunerokotasunean ditugu desberdintasunei aurre egitean esku hartzeko maila egokienak eta gizarte berdinzaleagoa sustatzeko aukerak. Bere eskumenen eremuan eta tokiko eragileekin elkarlanean (batzuk aliatu gisa jaso dira plan honetan), emakume eta gizonen berdintasun eraginkorraren aldeko ekintza zehatzei ekin diezaieke.

Ardatz horretan honako helburu eta ekintza hauek zehaztu dira:

1. ARDATZA: GOBERNAMENDU ONA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

Konpromiso politikoa eta teknikoa berdintasuneko udal-politiketara bideratzea, udal-jarduketa guztietan generoa zeharka gauzatzeko.

Helburu zehatzak	Ekintzak	Inplikaturik dauden arduradunak eta/edo arloak
1.1. Berdintasunaren arloan udal-plangintza areagotu eta hobetzea.	1.1.1. Barnean Udaleko langile administratibo, tekniko eta politiko guztien artean Berdintasun Planaren helburuak zabaltzea.	Langile teknikoak
	1.1.2. Bakioko herritarren artean datozen urteotarako Berdintasun Planaren helburuak zabaltzea eta sozializatzea, Udalaren web-orriaren, tokiko aldizkariaren eta/edo topaketaren bidez.	Langile teknikoak
	1.1.3. Udal-arloei berdintasunaren arloan egiten ari diren jarduketari buruzko informazioa bidaltzea, posta elektronikoaren bidez.	Langile teknikoak
	1.1.4. Lanpostuen zerrenda berrikustea.	Kanpo-kontratazioa
	1.1.5. Urteko jardun-plana prestatzea Plana indarrean den urte bakoitzerako, aurreko urteko memorian jasotako balorazioaren arabera.	Langile teknikoak
	1.1.6. Dokumentazio administratiboa eta banakatu daitezkeen zerbitzuak aztertzea eta nola bereizten den ikustea.	Kanpo-kontratazioa
	1.1.7. Sexuen araberako desagregazioa pixkanaka sortzen den informazio eta dokumentazio guztian sartzea.	Langile teknikoak

	1.1.8. Herritarrek berdintasunarekin zerikusia duten gaien inguruan egiten dituzten ekarpenak jasotzea, Udalaren web-orriaren eta/edo iradokizunen ontziaren bidez.	Langile teknikoak
1.2. Udal-aurrekontuak Berdintasun Plana ezartzeko aurrekontu-partida izatea.	1.2.1. Planean aurreikusten diren jarduerak egiteko aurrekontu-partida zehatza gaitzea.	Esku-hartzea
1.3. Langile administratibo, tekniko eta politiko guztiei prestakuntza ematea.	1.3.1. Prestakuntza bakoitzerako tematikak identifikatzea	Kanpo-kontratazioa
	1.3.2. Berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzea, eginkizun administratibora, teknikora eta politikora egokituta.	Kanpo-kontratazioa
	1.3.3. Langile administratiboarentzat berdintasunaren arloko prestakuntza bereziko ikastaroak antolatzea	Kanpo-kontratazioa
	1.3.4. Langile teknikoentzat berdintasunaren arloko prestakuntza bereziko ikastaroak antolatzea	Kanpo-kontratazioa
	1.3.5. Langile politikoentzat berdintasunaren arloko prestakuntza bereziko ikastaroak antolatzea	Kanpo-kontratazioa
1.4. Komunikazioan berdintasuna integratzea.	1.4.1. Udal-langileentzat lan-tresna izango den gida zabaltzea, hizkuntzaren erabilera inklusiboa erabiltzeko.	Kanpo-kontratazioa
	1.4.2. Berdintasunaren arloan sortzen diren eta Udalak onesten dituen dokumentu guztietara jotzeko aukera hobetzea.	Langile teknikoak

	1.4.3. Udalaren barruan komunikazio-hizkera eta -elementu ez-sexistak erabiltzeko sentsibilizazio-kanpaina egitea	Kanpo-kontratazioa
1.5. Parte hartzeko eta kontsultak egiteko espazioetan genero-ikuspegia sartzea.	1.5.1. Parte hartzeko edozein prozesutan, sexuen arabera bereizitako datu eta ondorioak ateratzea.	Langile teknikoak eta/edo administratiboak
	1.5.2. Erabakiak hartzeko espazioetan parekotasuna bermatzeko lan egitea.	Langile teknikoak
1.6. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.	1.6.1. Berdinsarea eta Berdinbidea – Berdintasunaren Aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarean parte hartzea.	Langile teknikoak eta politikoak
	1.6.2. Berdintasunaren Aldeko Udal Kontseilua sortzea.	Langile teknikoak eta politikoak

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE POLITIKO ETA SOZIALA ETA BALIO-ALDAKETA

Emakumeen ahalduntzea (politikoa, soziala, ekonomikoa, antolamendukoa...) ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko. Emakunderen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak jaso duenez: "Emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua da; hainbat mailatan egon behar da (pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa) eta hainbat alorretatik lagundu behar zaio (politiko-instituzionala, eta antolaketaren, gizartearen eta herritarren arlokoa)". Plan horren arabera, ahalduntzea da emakumeen parte-hartze aktiboa handitzea erabakiak hartzeko eta boterera jotzeko prozesuetan, bai eta emakumeek banaka eta kolektiboan duten boterearen kontzientzia hartzea ere, pertsonaletik komunitariora eta komunitariorik politikoko eta eraldatzailerara doan prozesuan.

Gizarte desberdinetik eta patriarkatuan errotuta dagoen gizartetik abiatuta balioak aldatzea, berdintasunean oinarritzen diren idealak lortzeko, gizartea eraldatzeko prozesu konplexua da; horretarako, gizon eta emakumeen kontzientziak eta pentsamoldeak aldatu behar dira. Prozesu horrek pertsona bakoitzaren eta, oro har, gizartearen maila sinbolikoan du eragina. Hori dela eta, plan honek emakumeak ahalduntzeko espazioak eta baldintzak sortu behar ditu, baina, halaber, maskulinitasun hegemonikoekin amaitzekoak. Apustua emakumeen elkartzeko-mugimenduaren eragin-maila sendotzea da, udalerrian oso presente dagoela aintzat hartuta, eta, horretarako, tokiko boterearekin antolatzeko espazioak finkatzea eta horiek politika publikoak eraikitzen parte hartzeko gaitasuna areagotzea eta, aldi berean, herritar gazteekin berdintasunean oinarritzen den gizartearen oinarriak ezartzean lan egitea.

Ardatz horretan honako helburu eta ekintza hauek zehaztu dira:

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE POLITIKO ETA SOZIALA ETA BALIO-ALDAKETA		
Erabakiak hartzeko espazio publikoetan emakumeen ordezkari eta parte-hartze soziala eta politikoa bermatzeko eta balio-aldaketari laguntzeko beharrezko baldintza eta espazioak sortzea.		
Helburu zehatzak	Ekintzak	Inplikaturik dauden arduradunak eta/edo arloak
2.1. Udaletik sexuen arteko berdintasun-printzipioa eta sexuagatiko diskriminaziorik eza sustatzea.	2.1.1. Eskola Kontseiluari diagnostikoa prestatzeko proposamena egitea, bertan eskolan dauden jokatibide eta portaera sexistak identifikatzeko	Kanpo-kontratazioa
	2.1.2. Eskola Kontseiluari irakasle eta ama eta aitekin diagnostikoan identifikatutako hobekuntza-arloak sozializatzeko proposamena egitea	Langile politikoak
	2.1.3. Eskola Kontseiluari baterako hezkuntzako material didaktikoak irakurtzeko proposamena egitea	Langile politikoak
	2.1.4. Eskola Kontseiluari Guraso Elkartearekin, elkartzemugimenduekin eta mugimendu feministarekin batera lan egiteko beharra azaltzea, eskolan baterako hezkuntza sustatzeko	Langile politikoak

2.2. Emakumeek udalerriko garapen jasangarriari egiten dioten ekarpena ikusarazi eta haren balioa nabarmentzea	2.2.1. URKITZA eskolarekin batera ekitaldi bat antolatzea eta, bertan, nekazaritza ekologikoan eta txakolinaren eremuan lan egiten duten emakumeei ahotsa ematea	Langile teknikoak
	2.2.2. Web-orriaren eta/edo udal-aldizkariaren eta informazio-panelen eta prentsaren bidez emakumeek udalerriaren garapen jasangarriari egiten dioten ekarpena zabaldu eta jakinaraztea	Langile teknikoak
2.3. Balio-aldaketa sustatzea eta, horretarako, pertsonen beren sexuaren arabera esleitzen zaizkien genero- eta rol-estereotipoekin amaitzea.	2.3.1. Sentsibilizazio-kanpaina bat antolatzea eta, horren bidez, emakumeek ostalaritzako postu, kategoria eta maila guztietan eginiko lanari balio soziala ematea./ 2020	Langile politikoak
2.4. Ikasleekin maskulinitasun berriak lantzea.	2.4.1. Tailerra Gaztelekun, estereotipo, genero-aukera eta maskulinitasun berriei buruz hausnartzeko ume eta nerabeekin, bai eta sexualitatearen gizarte-ordezkaritzekin ere.	Gaztelekuko langileak
	2.4.2. Bi hilerik behin elkarlaneko jolasak eta neskato eta mutikoek espazio publikoan partekatutako jolasak antolatzea	Langile teknikoak

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BAKIOKO I. UDAL PLANA

	2.4.3. Hizkera ez-sexista erabiltzea Bakioko ume eta gazteentzat antolatzen diren jarduera guztietan	Langile teknikoak
	2.4.4. Bakioko herritarrekin lan egiten duten monitore eta elkarteak sentsibilizatzea eta horiei berdintasunean oinarritutako prestakuntza ematea	Langile teknikoak
2.5. Kultura-, aisia- eta kirol-programetan emakume eta gizonen berdintasunean oinarritzen den parte-hartzea sustatzea	2.5.1. Emakumeek kultura-, kirol- eta aisia-eremuan eta bizitza sozialean duten partaidetza-tasa aztertzea	Langile teknikoak
	2.5.2. Kultura-eskaintzaren diseinuan genero-adierazleak sartzea	Langile teknikoak
2.6. Bakioko kultura-programazioan emakumeen presentzia eta kreazioak areagotzea.	2.6.1. Bakioko kultura-programazioan emakume sortzaileen jarduera edo topaketa antolatzea	Langile teknikoak
2.7. Udalerriko elkarteetan genero-ikuspegia sartzea	2.7.1. Udalerrian hainbat eremutan dauden elkartei (kultura, emakumeak, musika, kirola...) berdintasunaren inguruko prestakuntza eta aholkularitza ematea	Langile teknikoak
2.8. Kirolaren eremuan emakumeen ahalduntzea sustatzea.	2.8.1. Bakioko emakume kirolariek emakumezkoen kirola maiatzaren 28aren inguruko (Emakumeen Osasunaren Aldeko Ekintzarako Nazioarteko Eguna)	Kiroldegi Langile teknikoak

	jardunaldi/topaketa baten bidez ikusarazten eta sentsibilizatzen dute.	
	2.8.2. Emakumeen kasuan ikusgai ez dauden kirolean emakumeen kirol-ekipoak sustatzea	Kiroldegi
2.9. Udalerriko adin guztietako emakumeen kirol-praktika ezagutzera ematea	2.9.1. Emakume eta nesken kirola ezagutzera emateko sentsibilizazio-kanpainak egitea	Langile politikoak Kiroldegi

3. ARDATZA: ANTOLAMENDU SOZIALA ERALDATZEA, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEKO

Feminismoaren ondorioz, arretagune da ekoizpenerako eta lanerako dugun eredu kapitalistaren eta giza bizitzaren zainketetarako denboren arteko tentsioa, gero eta tentsio handiagoa. Gero eta nabarmenagoa da balioa, arreta eta energia ordainpeko lanean kontzentratzen ditugula eta balio, arreta eta energia hori adingabeak eta mendekoak zaintzeko lanetik urruntzen ditugula. Zainketa-lanak bizitzak irauteko euskarri gisa duen balioa nabarmentzea da plan honen helburua, bai eta espazio publikoan zainketa-lanetarako bide eman eta, besteak beste, kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako bide ematen duten ekipamenduak bermatzea ere.

Botere publikoek, gai horretan, rol garrantzitsua eta estrategikoa dute, beren tokiko politiketatik, zainketetara bideratutako edo horiekin itsu dagoen hiria sustatzeko. Hori dela eta, udal-instalazioetatik beretatik, emakumeak eta gizonak berdintasunean inplikatzeko dituen zainketa-eredua sustatu behar da. Gainera, gizarte-zerbitzuek, bai udal-mailakoek, bai udalerriaz gaindikoez, zabalago begiratu behar dute eta eginkizun pedagogikoa eta eraldatzailea bete, genero-estereotipo eta -rolei dagokienez.

Ardatz horretan honako helburu eta ekintza hauek zehaztu dira:

3. ARDATZA: ANTOLAMENDU SOZIALA ERALDATZEA, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEKO		
Eragile guztien erantzunkidetasuna sustatzea, tokiko administrazioarena barne, zainketa duinak eta kalitatekoak izateko eskubidea bermatzeko orduan.		
Helburu zehatzak	Ekintzak	Inplikaturuta dauden arduradunak eta/edo arloak
3.1. Bizitzaren iraunkortasunean zainketek duten garrantziaren gaineko kontzientzia hartzea.	3.1.1. Udalerrian zainketen egoerari buruzko diagnostikoa prestatzea (hartu eta ematen direnak)	Kanpo-kontratazioa
3.2. Zainketa-lanak emakumeen inguruko eginkizuntzat jotzen ez duen gazte- eta nerabe-kopurua areagotzea.	3.2.1. Mankomunitateari pertsona eta gizarte-eragile guztiak, toki-administrazioa barne, zainketa-lanetan inplikatze beharraz sentsibilizatzeko kanpaina proposatzea.	Langile teknikoak
3.3. Zainketa-lanak bizitzak irauteko oinarri gisa duen balioa nabarmentzea.	3.3.1. Prestakuntza-saioa, eta, bertan, ordainpekoa ez den lanak sistema sozioekonomikoaren funtzionamenduari, giza bizitzaren zainketei eta ongizateari egiten dien ekarpena azaltzea.	Langile teknikoak eta politikoak
3.4. Espazio publikoan zainketa-lanei bide ematea eta kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako aukera ematen duten ekipamenduak bermatzea	3.4. Pixkanaka, emakume eta gizonentzako edoskitze-gelak eta umeen aldalekuak sartzera udal-instalazioetan.	Langile teknikoak
	3.4.1. Udalerriko emakume eta gizonentzako edoskitze-gelak eta umeen aldalekuak zer udal-instantzian jar daitezkeen identifikatzea.	Langile teknikoak
	3.4.2. Argi seinaleztatzea identifikatu diren udal-instantzien espazioak.	Langile teknikoak

4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Berdintasunean oinarritzen den gizartearen aldeko borroka, emakume eta gizonen arteko desberdintasunik ez duen gizartearen aldeko borroka indarkeria matxisten aurkako politika publiko aktiboak behar ditu. Plan honen arabera, indarkeria matxista da emakumeek jasaten duten bazterkeria eta emakume eta gizonen arteko desberdintasun-egoera adierazteko beren aurka gauzatzen dena, gizonak emakumeen gainean gauzatzen duten botere-harremanen sistemaren esparruan, eta kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala, psikologikoa edo sinbolikoa dakarrena. Indarkeria matxistak sistema patriarkalaren ondorio eta sintoma dira, eta hala heldu behar zaie, ikuspegi feministatik eta egituratzailetik; ondorioei ez ezik, jatorriari ere heldu behar zaio.

Indarkeria matxistak gizarte-arazoa dira, eta hala tratatzen ditu plan honek, tokiko eta eskualdeko beste erakunde batzuekin koordinazioan, bai eta udalerriko elkarte-mugimenduarekin eta emakumeen mugimenduarekin batera ere. Indarkeria matxista oro prebenitu behar da eta harekin amaitu, hori oinarri baita ardatz horretan lan egiteko plan honetan aurreikusten diren estrategietarako. Indarkeria matxistarik gabeko bizitza sustatzean arretagune da neskato eta emakumeen segurtasuna, baina baita LGBTI pertsonen kolektiboa ere. Gure gizarteko joera heteropatriarkalaren ondorioz, beren identitatea aske bizitzeko benetako berme eraginkorra ez duten pertsona askok ezin dituzte beren eskubideak askatasunez eta berdintasunean bizi. Hori dela eta, plan honek oztopo hori aztertu eta beren eskubideak bermatzeko arreta, baliabideak eta bitartekoak jaso ditu.

Azkenik, ardatz horretan honako helburu eta ekintza hauek zehaztu dira:

4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK.

Emakumeen aurka eta eredu heteroarautzailetik aldenduta sentitzen diren pertsonen aurka gauzatutako indarkeria guztiak detektatu eta prebenitzea eta indarkerien oinarri eta euskarri diren balioak aldatzeko esku hartzea.

Helburu zehatzak	Ekintzak	Inplikaturata dauden arduradunak eta/edo arloak
4.1. Hirigintza herritarren eta profesionalen artean berrantolatzea eta, horretarako, emakume eta gizonentzako hiri seguruagoak eta atseginagoak eraikitzeko ahalegina egitea.	4.1.1. HAPOn genero-ikuspegiarekin berrikustea 4.1.2. Bakioko emakumeen elkarte eta taldeekin, elkartze-mugimenduetarekin eta mugimendu feministarekin eta gizarte-eragileekin batera, emakumeentzako segurtasun gutxi, arriskua eta beldurra eragiten duten guneen mapa prestatzea.	Langile teknikoak Berdintasun Kontseilua
4.2. Genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideak sozializatzea.	4.2.1. Udalak zabalduetako jakinarazpenen bidez, genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideak sozializatzea eta horien berri ematea	Langile teknikoak
4.3. Ikuspen gutxiko guneetan ikuspen ona ziurtatzea: bazterrak, kale itsuak, eskailerak, tunelak	4.3.1. Eraikuntza-ordenantza bat prestatzea eta horrek espazio publikoetan ikuspena murrizten duten 1,60 metrotik gorako elementu opakuek kentzen direla bermatzea eta itxitura diafanoa duten eta kaletik ikusteko modukoak diren atariak, igogailurako sarrerak eta	Langile teknikoak

	eskailera-hasierak diseinatzeko derrigortasuna ezartzea.	
	4.3.2. Ikuspen egokia oztopatzen duten zuhaixkak, sasiak eta landaredia etengabe garbitzea.	Obrak eta zerbitzuak
4.4. Neskato eta emakumeen eta LGTBI pertsonen kolektiboaren aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza sustatzea	4.4.1. Genero-indarkeriaren inguruan mankomunatutako protokoloak berrikustea	Langile teknikoak
	4.4.2. Herritar gazteenei genero-indarkeriaren moten inguruan zuzendutako prestakuntza-saioa	Langile teknikoak
	4.4.3. Genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza-saioa udalerriko gizarte- eta hezkuntza-eragileei zuzenduta	Langile teknikoak
	4.4.4. Maskulinitasun hegemonikoa eraldatzea sustatzeko gizonei zuzendutako prestakuntza-saioa	Langile teknikoak
	4.4.5. Indarkeria matxisten aurrean herritarrak inplikatzeko eta adin goiztiarrean prebenitzea sustatzen duten sentsibilizazio-kanpainak	Langile teknikoak
	4.4.6. Udalaren kanpainen irudiak, kartelak eta jakinarazpenak berrikustea, emakumeen kontrako eta LGTBI pertsonen kolektiboaren kontrako indarkeria islatzen duten ereduak eta portaera permisiboak	Langile teknikoak

	transmititzen, justifikatzen eta sustatzen ez dituztela bermatzeko	
	4.4.7. Udalak esku hartzeko protokoloa azaltzen duen gida prestatu eta zabaltzea, zer eta nola egin jakiteko, zer urrats eman eta Gizarte Zerbitzuetatik zer baliabide eskaintzen den jakiteko	Langile teknikoak

4. KUDEAKETA-EREDUA.

4.1. Garapena eta segimendua

Bakioko Udalak I. Berdintasun Plana garatzeko eta haren segimendua egiteko ezarritako kudeaketa-eredua erabakigarria da ezarritako helburuak betetzeko. Horrela, Alkatetzatik datozen bi urteotarako, alegia 2019rako eta 202rako, planifikatutako ekintzak garatzeko eta horien segimendua egiteko erantzukizunak banatuko dira.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana ezartzeko konpromisoa eta erantzukizuna udal-arlo eta -sail guztiek dute; izan ere, planaren garapeneko zati aktiboa dira, toki-administrazioko eragile nagusi baitira.

Hala ere, udal-planean ezarritako ekintzen arabera, zeharkako edo sailen arteko lantaldeak ezar litezke eta plana antolatu den bitartean egin diren lanaioei eutsi lekizkieke –horietan, udaleko langile teknikoek ez ezik, zenbait emakume-elkartek, Guraso Elkartek eta *Sare Feministak* parte hartu dute–.

Hori dela eta, toki-erakundean langile administratiboek, teknikoek eta politikoez eta udalerriko elkarte-mugimenduak partekatutako eta elkarlaneko lidergoaren aldeko apustua egiten dugu.

Era berean, eta nahiz eta dokumentu honetan jarraian adierazten diren eginkizun batzuk ezarri diren, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana plan bizia da eta ekintzak ezarri bitartean sortzen diren behar eta/edo egoeretara egokitzeko gai da.

- Udaleko arlo teknikoekin planaren ekintzak koordinatzea
- Planaren ezarpena, segimendua eta ebaluazioa sustatzea.
- Ezarpeneko urteko kronogramak berrikusi eta beharrezko egokitzapenak egitea.□
- I. Berdintasun Planaren ebaluazio-sistema koordinatzea, ekintza bakoitzaren segimendu-fitxen kudeaketa, prestaketa eta erabilera barne.

Era berean, plana garatzeko eta haren segimendua egiteko, barneko bi udal-egitura proposatzen ditugu:

1. Berdintasun Kontseilua.
2. Indarkeria matxistekin amaitzeko Segimendu Batzordea.

4.2. Ebaluazioa.

Ezarritako espazioek eta egiturek Berdintasunerako I. Udal Planaren segimenduan eta ebaluazioan beren zeregina izateko, **prozesu- eta segimendu-adierazleak** zehaztu behar dira, honako alderdi hauek aintzat hartuta:

1. Argi deskribatzea itxaropen faltsurik ez sortzeko erabiliko diren adierazleak.
2. Errealistak izatea urtero zehaztutako adierazleei buruzko informazioa jasotzeko behar den lan administratiboaren eta teknikoaren inguruan.
3. Arlo bakoitzak bere adierazleak kudeatu ahal izateko ebaluazio-sistema operatiboa eta errealista koordinatzea.
4. Etengabeko ebaluazio iraunkorra denboran, alegia, urtero beharrezko datuak jaso eta bilakaera ezagutzea, planaren azken ebaluazioak baliozkotasuna eduki ahal izateko.

Zertarako ebaluatzen dugu?

1. Ekintza, aurrekontu eta kronograma dela eta, planifikatutakoa zenbateraino bete den jakiteko.
2. Ekintzen garapenak maila administratiboan, teknikoan eta politikoan generoa zeharka gauzatzea bultzatu eta herritarrentzako udal-jarduketa eta -programetan isla duen aztertzeke.
3. Berdintasunerako I. Udal Planaren ezarpen-maila, betearazpen-maila jakiteko eta sortutako lan-prozesuei buruzko balorazioak jasotzeko.
4. Erabakiak hartzeko alderdi kuantitatibo eta kualitatibo esanguratsuak berrikusi eta sartzean ikasi eta hobetzeko.

Prozesu- eta segimendu-adierazleak

Jarraian, Bakioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Planaren indarraldiaren hurrengo bi urteotarako proposatutako **helburuak bete direla egiaztatzeko adierazleak eta iturriak** zein izango diren azalduko dugu:

1. ARDATZA: GOBERNAMENDU ONA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

- ✓ Berdintasun Planari buruzko barneko jakinarazpen-kopurua
- ✓ Udalean barneko zabalkunderako bitartekoen bidez Berdintasun Planaren informazioa jaso duen langile-kopurua
- ✓ Udalak sortutako dokumentazioaren ehunekoa, sexuaren arabera bereizita
- ✓ Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako aurrekontua
- ✓ Udal-langileei berdintasunean oinarritutako prestakuntzarako emandako ikastaro- eta ordu-kopurua
- ✓ Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzeko eta aztertzeko urratsak jaso dituzten dokumentuak betetzen dituzten udal-arloen kopurua
- ✓ Hizkeraren erabilera inklusiborako gidaren dokumentua jaso duen pertsona-kopurua
- ✓ Udalean gida erabiltzen duen pertsona-kopurua
- ✓ Hizketa ez-inklusiboaren inguruan sentsibilizatzeko barneko kanpainarako sortu diren materialak
- ✓ Kanpainaren eraginaren ebaluazioak
- ✓ Berdinsarea eta Berdinbidea sareetako bilera-kopurua
- ✓ Berdintasunerako Udal Kontseiluaren saio- eta akta-kopurua
- ✓ Kontseiluan parte hartzen duen emakumeen eta feministen elkarte-kopurua

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE POLITIKO ETA SOZIALA ETA BALIO-ALDAKETA

- ✓ Eskolan jokabide eta portaera sexisten diagnostikoaren dokumentua
- ✓ Diagnostikoan inplikaturik dagoen ikasle-kopurua
- ✓ Diagnostikoa sozializatzeko irakasle eta ama eta aitekin eginiko bilera-kopurua

- ✓ Eskola Kontseiluarekin baterako hezkuntza eta eskolan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzearekin lotutako gaiak aztertze eginiko bilera-kopurua
- ✓ Eskola Kontseiluaren, Udalaren, Guraso Elkartearen eta mugimendu feministaren arteko bilera-kopurua
- ✓ Nekazaritza ekologikoan eta txakolinaren inguruan lan egiten duten emakumeei ahotsa emateko antolatutako ekitaldira bertaratutako pertsona-kopurua
- ✓ Jardunaldian parte hartzen duen enpresa-kopurua
- ✓ Udalaren bitartekoen bidez (weba, aldizkaria...), emakumeak udalerraren garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena agerian uzten duen jakinarazpen-kopurua
- ✓ Emakumeek ostalaritzaren sektorean egindako lanaren gizarte-balioaren gainean sentsibilizatzeko kanpainaren hartzaille-kopurua
- ✓ Kanpainaren eraginaren ebaluazioa
- ✓ Berdintasunaren inguruko prestakuntza-kopurua eta elkartze-munduko pertsonen zuzendutako prestakuntzen ordu-kopurua
- ✓ Genero-educia duten kultura-jardueren kopurua
- ✓ Emakumearen eta kirolaren inguruan generoaren ikuspegitik eginiko jarduera-kopurua

3. ARDATZA: ANTOLAMENDU SOZIALA ERALDATZEA, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEKO

- ✓ Udalerrian zainketak emateko eta hartzeko errealitateari buruzko diagnostikoaren dokumentua
- ✓ Zainketen gaiaren inguruan eginiko jarduera-kopurua
- ✓ Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik zainketen inguruan eginiko prestakuntza-kopurua
- ✓ Udal-instalazioetan jarritako edoskitze-gelen eta aldaleku mistoen kopurua

4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK.

- ✓ Emakumeentzako segurtasun gutxiko leku gisa identifikatutako hiri-guneen kopurua

- ✓ Emakumeentzako segurtasunik eza saihesteko “berrurbanizatutako” guneen kopurua
- ✓ Genero-indarkeriaren biktimak hartzeko baliabideak sozializatu eta ezagutzera emateko udalaren jakinarazpen-ekintzen kopurua
- ✓ Genero-ikuspegitik berrikusitako protokolo mankomunatuaren kopurua
- ✓ Gazteei genero-indarkeriaren inguruan emandako prestakuntza-orduen kopurua
- ✓ Prestakuntzara bertaratutako pertsona-kopurua, sexuaren arabera bereizita
- ✓ Indarkeria matxisten aurrean kanpainen mobilizatutako pertsona-kopurua
- ✓ Berrikusitako udalaren dokumentu- eta jakinarazpen-kopurua
- ✓ Gidaren hartzaile-kopurua

4.3. Baliabide ekonomikoak.

Tokiko administrazioek urtero diseinatzen dituzte beren aurrekontuak. Kasu horretan, aurkezten den planak bi urteko indarraldia izango du eta, beraz, aurrekontu-partida hura ezartzeko behar den baliabide ekonomikoen bolumenaren arabera aurreikusitakoa izango da.

5. PLANA BETEARAZTEKO KRONOGRAMA

JARDUERAK	2019												2020												
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	
1. ARDATZA: GOBERNAMENDU ONA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO																									
1. HE Berdintasunaren arloan udal-plangintza areagotu eta hobetzea.																									
A.1.1.1.																									
A.1.1.2.																									
A.1.1.3.																									
A.1.1.4.																									
A.1.1.5.																									
A.1.1.6.																									
A.1.1.7.																									
A.1.1.8.																									
2. HE. Udal-aurrekontuak Berdintasun Plana ezartzeko aurrekontu-partida izatea.																									
A.1.2.1.																									
3. HE. Langile administratibo, tekniko eta politiko guztiei prestakuntza ematea																									
A.1.3.1.																									
A.1.3.2.																									
A.1.3.3.																									
A.1.3.4.																									
A.1.3.5.																									
4. HE. Udal-komunikazioan berdintasuna integratzea																									
A.1.4.1.																									
A.1.4.2.																									
A.1.4.3.																									
5. HE. Parte hartzeko eta kontsultak egiteko espazioetan genero-ikuspegia sartzea																									
A.1.5.1.																									
A.1.5.2.																									
6. HE. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaz bultzatzea.																									
A.1.6.1.																									
A.1.6.2.																									
2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE POLITIKO ETA SOZIALA ETA BALIO-ALDAKETA																									

1. HE. Udaletik sexuen arteko berdintasun-printzipioa eta sexuagatiko diskriminaziorik eza sustatzea.																	
A.2.1.1.																	
A.2.1.2.																	
1.2.1.3.																	
A.2.1.4.																	
2. HE. Emakumeek udalerriko garapen jasangarriari egiten dioten ekarpena ikusarazi eta haren balioa nabarmentzea																	
A.2.2.1.																	
A.2.2.2.																	
3. HE. Balio-aldaketa sustatzea eta, horretarako, pertsonei beren sexuaren arabera esleitzen zaizkien genero- eta rol-estereotipoekin amaitzea.																	
A.2.3.1.																	
4. HE. Ikasleekin maskulinitasun berriak lantzea																	
A.2.4.1.																	
A.2.4.2.																	
A.2.4.3.																	
A.2.4.4.																	
5. HE. Kultura-, aisia- eta kirol-programetan emakume eta gizonen berdintasunean oinarritzen den parte-hartzea sustatzea.																	
A.2.5.1.																	
A.2.5.2.																	
6. HE. Bakioko kultura-programazioan emakumeen presentzia eta kreazioak areagotzea.																	
A.2.6.1.																	
7. HE. Udalerriko elkarteetan genero-ikuspegia sartzea.																	
A.2.7.1.																	
8. HE. Kirolaren eremuan emakumeen ahalduntzea sustatzea.																	
A.2.8.1.																	
A.2.8.2.																	
9. HE. Udalerriko adin guztietako emakumeen kirol-praktika ikusaraztea.																	
A.2.9.1.																	
3. ARDATZA: ANTOLAMENDU SOZIALA ERALDATZEA, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA BERMATZEKO																	
1. HE. Bizitzaren iraunkortasunean zainketek duten garrantziaren gaineko kontzientzia hartzea.																	
A.3.1.1.																	
2. HE. Zainketa-lanak emakumeen inguruko eginkizuntzat jotzen ez duen gazte- eta nerabe-kopurua areagotzea.																	

A.3.2.1.																										
3. HE. Zainketa-lanak bizitzak irauteko oinarri gisa duen balioa nabarmentzea.																										
A.3.3.1.																										
4. HE. Espazio publikoan zainketa-lanei bide ematea eta kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako aukera ematen duten ekipamenduak bermatzea.																										
A.3.4.1.																										
A.3.4.2.																										
A.3.4.3.																										
4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK																										
1. HE. Hirigintza herritarren eta profesionalen artean berrantolatzea eta, horretarako, emakume eta gizonentzako hiri seguruagoak eta atseginagoak eraikitzeko ahalegina egitea.																										
A.4.1.1.																										
A.4.1.2.																										
2. HE. Genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideak sozializatzea.																										
A.4.2.1.																										
3. HE. Ikuspen gutxiko guneetan ikuspen ona ziurtatzea: bazterrak, kaleitsuak, eskailerak, tunelak																										
A.4.3.1.																										
A.4.3.2.																										
4. HE. Neskato eta emakumeen eta LGTBI pertsonen kolektiboaren aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza sustatzea.																										
A.4.4.1.																										
A.4.4.2.																										
A.4.4.3.																										
A.4.4.4.																										
A.4.4.5.																										
A.4.4.6.																										
A.4.4.7.																										
A.4.4.8.																										